



## DUPHALAC ENEMA PRESTATZEA ETA JARTZEA

### HELBURUA:

- Hestea garbitzea, entzefalopatia prebenitzeko edo arintzeko.

### KONTUAN HARTU BEHARREKOAK:

- Temperatura egokia izan dadila (gutxi gorabehera, 37°)
- Enema geldo jartzea.

### MATERIALA:

- Enemarako ekipamendua (irrigatzailea, goma eta konexioa)
- Lubrifikatzailea
- Ondeste-zunda

### PAZIENTEA PRESTATZEA:

- Saiatu pazientea lasai egon dadin, eta lagun dezala enemari eusterakoan.
- Txiza egin dezala enema jarri aurretik.

### EKINTZAK:

- Prestatu enemaren soluziorako ekipamendua, ospitalean erakutsi dizuten bezala (kantitateak hauek dira: 250 cc Duphalac eta 750 cc ur).
- Lagundu pazienteari ezkereranzko alboko etzaneran jartzen, eskuineko zangoa tolestuta duela.
- Lubrifikatu zunda, eta sartu uzkiean, 10etik 15era cm bitarteraino. Erresistentziarik egonez gero, saiatu zunda ez behartzen.
- Altxatu irrigatzailea eta kontrolatu soluzioa geldo jaisten dela.
- Pazienteak minik balu, gutxitu presioa. Horretarako, jarri irrigatzailea behegero.
- Itxi pasoko giltza, soluzioa amaitu baino lehen.
- Kendu ondeste-zunda.
- Pazienteak etzanda egon behar du 15 minutuz, gutxi gorabehera.
- Erreparatu eginkarien ezaugarriari, eta anomaliarik balego (kolore gorriko edo beltzeko eginkariak; odola egon daitekeela adierazten dute), joan zure oheburuko medikuarengana.

### NOLA IZAN MATERIALA EGOERA ONEAN?

- Alta hartzean edo kanpo-kontsultan, erizainak behar duzun materiala emango dizu.
- Ondeste-zunda 7 aldiz arte erabil daiteke, baldin eta higiene-egoera onean bada. Horrela ez bada, bota materiala.
- 50 cc-ko xiringa erabat hondatu arte erabil dezakezu.
- Ondeste-zunda ur eta xaboiz garbitu behar duzu, eta gero, ura sartu behar diozu 50 cc-ko xiringaz, arrasto guztiak garbitu arte.
- Gorde material guztia eskuoihal batean bilduta, hurrengo erabilera arte.